

## INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (DBH 4)

DEPARTAMENTUA	INFORMATIKA
<b>ZERTARAKO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur egungo gizarterako eta batez ere hezkuntza prozesuan guztiz beharrezkoak diren tresna informatiko eta aplikazioak modu egokian erabiltzeko.</li> <li>• Helburu ezberdinetako aplikazioak landuko dira.</li> <li>• Informatikako 4 arlo nagusiak sendotzeko: ordenadorearen egitura (HARDWAREA), aplikazioak (SOFTWAREA), Programazioa eta Web orrien diseinua.</li> </ul>
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordenagailu baten egitura, funtzionamendua, osagaiak eta hauen muntatze eta desmuntatzea.</li> <li>• GIMP irudi editorea, argazkiei ukituak emateko.</li> <li>• ACCESS Datu baseak, datu baseak sortu eta kudeatzeko.</li> <li>• Programazio hastapena, Pseint.</li> <li>• App aplikazioak programatzeko, APP Inventor ingurunea.</li> <li>• Web orriak sortzeko HTML oinarriko etiketak.</li> <li>• Web orri sortzaileak: WebNode, Wix,...</li> </ul>
<b>METODOLOGIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasgaia guztiz praktikoa da.</li> <li>• Ikasleek Moodle hezkuntza plataforman jarritako banakako eta taldekako jarduerak lantzen dituzte, zuzentzeko aukera dutelarik.</li> <li>• Ikasteko eta lan egiteko modu berriak bultzatuko dira; lan kolaboratiboa, sarean egindako lana, etab.....</li> <li>• Erabiltzen diren baliabideak hauek dira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Moodle plataforma.</li> <li>○ Irakasleak sorturiko apunteak.</li> <li>○ Programa informatikoak: Aukeratzen diren programak ahal den neurrian doakoak eta libreak izango dira, honela ikasleek etxeko ordenagailuetan instalatzeko aukera izango dute.</li> <li>○ Gelan ordenagailu bat ikasle bakoitzeko.</li> </ul> </li> </ul>
<b>EBALUAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru atal kontutan hartzen dira, gelako lanak, proiektuak edo frogak eta jarrera. Gelako lanari ematen zaio garrantzirik handiena.</li> </ul>
<b>OHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasgaia neskontzat eta mutilentzat pentsatua dago. Azken boladan gehien bat mutilak matrikulatzeko joera dago eta honi buelta eman nahi diogu.</li> <li>• Etxean ordenagailua izatea ez da beharrezkoa.</li> </ul>

**TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACION Y COMUNICACIÓN (4 ESO)**

<b>DEPARTAMENTO</b>	<b>INFORMÁTICA</b>
<b>PARA QUE</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Utilizar adecuadamente las herramientas informáticas y aplicaciones necesarias para la sociedad actual y sobre todo en el proceso educativo.</li> <li>• Se trabajarán aplicaciones con diferentes objetivos.</li> <li>• Para consolidar las 4 áreas principales de informática: estructura del ordenador (HARDWAREA), aplicaciones (SOFTWAREA), Programación y diseño de páginas Web.</li> </ul>
<b>QUE VAS A APRENDER</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estructura, funcionamiento, componentes de un ordenador y su montaje y desmontaje.</li> <li>• Editor de imágenes Gimp, para retocar fotografías.</li> <li>• Bases de datos ACCESS para la creación y gestión de bases de datos.</li> <li>• Iniciación a la programación, Pseint.</li> <li>• Entorno APP Inventor para programar aplicaciones App.</li> <li>• Etiquetas básicas HTML para la creación de páginas web.</li> <li>• Generadores de páginas Web: WebNode, Wix...</li> </ul>
<b>METODOLOGÍA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• La asignatura es eminentemente práctica.</li> <li>• Los alumnos desarrollan actividades individuales y grupales en la plataforma educativa Moodle, con posibilidad de corrección.</li> <li>• Se impulsarán nuevas formas de aprender y trabajar; trabajo colaborativo, trabajo en red, etc.</li> <li>• Los recursos que se utilizan son:             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Plataforma Moodle.</li> <li>○ Apuntes creados por el profesor o la profesora.</li> <li>○ Programas informáticos: los programas que se elijan serán, en la medida de lo posible, gratuitos y libres, de forma que los alumnos puedan instalarlos en los ordenadores de su casa.</li> <li>○ En clase un ordenador por alumno.</li> </ul> </li> </ul>
<b>EVALUACIÓN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Se tienen en cuenta tres apartados, los trabajos del aula, los proyectos o pruebas y la actitud. Lo que más importa es el trabajo en clase.</li> </ul>
<b>AVISOS</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• La asignatura está pensada para chicas y chicos. Últimamente la tendencia es que los chicos se matriculen más y queremos darle la vuelta a esto.</li> <li>• Tener ordenador en casa no es necesario.</li> </ul>

## BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>BIOLOGIA ETA GEOLOGIA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	4.DBHko ikasleei zuzendutako ikasgaia da. Biologia eta Geologia zientzien gai desberdinak landuko dira, aurreko urteetan landutako edukiak sakonduz.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	Geologiaren alorrean, luraren egitura eta dinamika, teknika eta erliebea eta gure planetaren historia landuko dira. Ondoren, lurak dituen baldintzak ikusirik, bizia nola garatu den landuko da, biziaren jatorria eta eboluazioan sakonduz. Bizi garen ekosistemen egitura eta dinamikak ikusiko dira, bai eta gizakiak bertan duen inpaktua. Amaitzeko, aurretik ikusi dituzun izaki bizidun horien antolaketa sakonduko dugu, maila zelularretik hasita maila genomiko arte, ezaugarrien herentziatik hasita, informazio eta manipulazio genetikoaren atalekin amaituz.
<b>METODOLOGIA</b>	Ikasgaia ikuspegi dinamiko batetik garatuko da. Konpetentzia zientifikoak garatzeko hainbat jardura edo proiektu txiki gauzatuko dira, ikasleak hausnarketara bultzatuko dituen ariketak eginez. Ikasgai mardula izanik, edukiak lantzeko tresna desberdinak erabiltzen ikasiko dute (mapa kontzeptualak egiten, poster zientifikoak, txosten zientifikoak, test-ak, azterketa idatziak, eta abar.)
<b>EBALUAZIOA</b>	Gauzatzen diren proiektu txikiak, esperimendu desberdinak laborategian eta landa eremuan, aurkezpenak, hitzaldiak, jardunaldiak ebaluatuko dira. Halaber, garrantzi handia emango zaie ikasleen interes, arreta, parte hartze aktibo eta errespetuzko jarrerei.
<b>OHARRAK</b>	Zientzietako ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleentzat zuzendutako irakasgaia da.

## BIOLOGÍA Y GEOLOGÍA

<b>DEPARTAMENTO</b>	BIOLOGÍA Y GEOLOGÍA
<b>OBJETIVO</b>	Asignatura dirigida a alumnos y alumnas de 4º de la ESO. Se tratarán temas diferentes de las ciencias de la Biología y la Geología, profundizando en los contenidos de los cursos anteriores.
<b>QUÉ APRENDERÁS</b>	En el campo de la Geología se tratará la estructura y la dinámica de la Tierra, la tectónica y el relieve, y la historia de nuestro planeta. Después, viendo las condiciones de la Tierra, se tratará cómo se ha desarrollado la vida, profundizando en el origen y la evolución de la vida. Se verá la estructura y las dinámicas de los ecosistemas en los que vivimos, así como el impacto del ser humano en ellos. Para terminar, profundizaremos en la organización de estos seres vivos que has visto anteriormente, desde el nivel celular hasta el nivel genómico, pasando por la herencia de caracteres, y acabando con los apartados de información y manipulación genética.
<b>METODOLOGÍA</b>	La materia se desarrollará desde una perspectiva dinámica. Para desarrollar la competencia científica se llevarán a cabo diversas actividades o pequeños proyectos, realizando ejercicios que inciten al alumnado a la reflexión. Aprenderán a utilizar diferentes herramientas para trabajar los contenidos (elaboración de informes científicos, mapas conceptuales, posters científicos, tests, exámenes escritos, etc.).
<b>EVALUACIÓN</b>	Se evaluarán pequeños proyectos que se lleven a cabo, diferentes experimentos en el laboratorio y en el campo, presentaciones... También se dará mucha importancia a las actitudes de interés, atención, participación activa y respeto del alumnado.
<b>ANOTACIONES</b>	Está enfocado para los alumnos y alumnas que quieran seguir estudios científicos.

## ZIENTZIA APLIKATUAK

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>BIOLOGIA ETA GEOLOGIA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	4.DBHko ikasleei zuzendutako ikasgaia da. Erdi mailako ikasketak egitera zuzendutako ikasleei eskainia (ez batxilergoari begira).
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	Zientzia ikuspegi zabal batetik landuko da. Zientzia eta ezaguera zientifikoa landuz. Metodo zientifikoaren nondik norakoak landuko dira esperimenduak eginez. Bestalde, Ametzu Jaizkibelen proiektua garatuko da, Jaizkibel mendian berez egon beharko lukeen ameztiaren berreskurapenean lagunduz. Laborategia erabiliko da hainbat praktika gauzatu ahal izateko. Baratzaren ardurak ikasleen artean banatuko dira. Loratu herria proiektuari jarraipena emango zaio.
<b>METODOLOGIA</b>	Ikasgaia ikuspegi dinamiko batetik garatuko da. Konpetentzia zientifikoa garatzeko hainbat jardura edo proiektu txiki gauzatu dira, ikasleak hausnarketara bultzatuko dituen ariketak eginez. Ikasgai mardula izanik, edukiak lantzeko tresna desberdinak erabiltzen ikasiko dute (mapa kontzeptualak, poster zientifikoak, txosten zientifikoak, test-ak, azterketa idatziak, eta abar.)
<b>EBALUAZIOA</b>	Gauzatzen diren proiektu txikiak, esperimendu desberdinak laborategian eta landa eremuan, aurkezpenak, praktiketako txostenak etabar ebaluatuko dira. Halaber, garrantzi handia emango zaie ikasleen interes, arreta, parte hartze aktibo eta errespetuzko jarrerari.
<b>OHARRAK</b>	Ikasketak Lanbide Heziketan jarraitzeko asmoa duten ikasleentzat oinarrizko ezagutzak ikasteko baliagarria izango da.

## CIENCIAS APLICADAS

<b>DEPARTAMENTO</b>	<b>BIOLOGÍA Y GEOLOGÍA</b>
<b>OBJETIVO</b>	Es una asignatura dirigida al alumnado de 4 ESO 4.DBHko ikasleei zuzendutako ikasgaia da. Dirigida a alumnos y alumnas que quieran cursar estudios de grado medio (no bachiller).
<b>QUÉ APRENDERÁS</b>	Se trabajará desde una perspectiva amplia de la ciencia. Ampliando los conocimientos sobre ciencia y el conocimiento científico. Se trabajará experimentalmente el método científico. Por otro lado, se desarrollará el proyecto de Ameztu Jaizkibel, colaborando en la recuperación del melojar ( <i>Quercus pyrenaica</i> ) que debería estar presente en el monte Jaizkibel. Se utilizará el laboratorio para realizar diversas prácticas. Se realizará un reparto de responsabilidades respecto a la huerta. Se continuará con el proyecto Loratu herria.
<b>METODOLOGÍA</b>	La materia se desarrollará desde una perspectiva dinámica. Para el desarrollo de la competencia científica se llevarán a cabo una serie de actividades o pequeños proyectos, en los que se realizarán actividades que favorezcan la reflexión del alumnado. El alumnado aprenderá a utilizar diferentes herramientas para trabajar los contenidos (mapas conceptuales, posters científicos, informes científicos, tests, artículos científicos, etc.)
<b>EVALUACIÓN</b>	Se evaluarán los pequeños proyectos que se lleven a cabo, los diferentes experimentos en el laboratorio y en el medio rural, las presentaciones, los informes de prácticas, etc. Asimismo, se prestará especial atención a la actitud: interés, atención, participación activa y respeto del alumnado.
<b>ANOTACIONES</b>	La asignatura será de utilidad para el aprendizaje de los conocimientos básicos del alumnado que desee proseguir sus estudios en la Formación Profesional.

**FILOSOFIA 4.DBH 3 ORDU ASTEAN**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>FILOSOFIA MINTEGIA</b>								
<b>ZERTARAKO</b>	<p>Filosofia ikasgaiaren norberaren burua eta inguratzen gaituen mundua hobeto ulertzen ahalegindu nahi dugu, hori baita hain zuzen ere, modu arduratsuago eta askeagoan bizitzea ahalbidetzen duena.</p> <p>Gutariko bakoitzaren galderak, kezak eta zalantzak azaleratze eta argitze aldera, filosofiaren galdera klasikoak izango ditugu bidelagun eta aitzaki, elkarrekin erantzunen bila abiatu ahal izateko.</p> <p>Horregatik, ikasgai honetan ez dugu erantzun zehatzik eman nahi, helburua norberak bere bidea egiten ikastea baita.</p>								
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<p>Ikasgai honetan ikasiko duguna ez da eduki edo kontzeptuetara murrizten, filosofia batez ere <b>jarrera</b> bat baita.</p> <p>Batez ere ikasiko dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Filosofiaren galderen inguruan sakontasunez <b>hausnartzen: Nor naiz ni? Zer jakin dezaket? Zer egin dezaket? Zer da gizakia?</b></li> <li>• Inguratzen gaituen mundua, etengabe aldatzen ari dena, <b>jarrera kritiko</b> batekin <b>interpretatzen</b>.</li> <li>• Norberaren pentsamenduak besteekin nahiz filosofo ezberdinekin <b>kontrastatzen</b>.</li> <li>• Norberaren ikuspegi propioa <b>adierazten</b>.</li> <li>• Norberaren pentsamenduak nahiz ikuspegia <b>partekatzeko</b> elkarrizketa filosofikoan trebatzen.</li> <li>• Elkarrekin filosofatuz modu teoriko batean ikasten duguna egunerokotasunean <b>aplikatzen</b>.</li> </ul> <p>Bide horretan landuko ditugun edukiak:</p> <table border="1" data-bbox="436 1061 2139 1455"> <thead> <tr> <th data-bbox="436 1061 1008 1125">1. ebaluazioa</th> <th data-bbox="1008 1061 1579 1125">2. ebaluazioa</th> <th data-bbox="1579 1061 2139 1125">3. ebaluazioa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="436 1125 1008 1455"> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer da filosofia?</li> <li>• Elkarrizketa filosofikoan trebatzen.</li> <li>• Ezagut ezazu zeure burua: nortasuna, emozioak, identitatea.</li> </ul> </td> <td data-bbox="1008 1125 1579 1455"> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mundua ezagutzen: Egia eta errealitatea.</li> <li>• Identitate pertsonala eta sozializazioa. Norbera besteekin.</li> </ul> </td> <td data-bbox="1579 1125 2139 1455"> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nola bizi gara, nola bizi nahi dugu eta nola bizi behar dugu?</li> <li>• Mundua adierazten: Estetika edo artearen filosofia.</li> <li>• Mundua eraldatzen: Etika edo moralaren filosofia.</li> </ul> </td> </tr> </tbody> </table>			1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer da filosofia?</li> <li>• Elkarrizketa filosofikoan trebatzen.</li> <li>• Ezagut ezazu zeure burua: nortasuna, emozioak, identitatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mundua ezagutzen: Egia eta errealitatea.</li> <li>• Identitate pertsonala eta sozializazioa. Norbera besteekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nola bizi gara, nola bizi nahi dugu eta nola bizi behar dugu?</li> <li>• Mundua adierazten: Estetika edo artearen filosofia.</li> <li>• Mundua eraldatzen: Etika edo moralaren filosofia.</li> </ul>
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa							
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer da filosofia?</li> <li>• Elkarrizketa filosofikoan trebatzen.</li> <li>• Ezagut ezazu zeure burua: nortasuna, emozioak, identitatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mundua ezagutzen: Egia eta errealitatea.</li> <li>• Identitate pertsonala eta sozializazioa. Norbera besteekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nola bizi gara, nola bizi nahi dugu eta nola bizi behar dugu?</li> <li>• Mundua adierazten: Estetika edo artearen filosofia.</li> <li>• Mundua eraldatzen: Etika edo moralaren filosofia.</li> </ul>							

<b>METODOLOGIA</b>	<p>Askotariko informazio-iturri, baliabide eta materiala erabiliko dugu: testuak, ipuinak, poesia, filmak, bideo zatiak, filosofia bisuala, sormenerako materiala...</p> <p>Zenbait auzi filosofiko aitzakitzat hartuta, borobilean jarrita elkarrizketa bultzatuko dugu. Horretarako ezinbestekoa izango da elkarren artean konfiantzazko eta errespetuzko giroa sortzea.</p> <p><i>Kafe filosofikoak</i> egingo ditugu: taldeka antolatuta, eta talde bakoitzeko idazkari bat prest dagoelarik, soluzioak garbi ikusten ez zaizkien egoerak planteatuko ditugu. “<i>Kafea</i>” hartuz eta giro atseginean ikasleek soluzio posibleak bilatuko dituzte arrazoiketa erabiliz, eta idazkariak ideia esanguratsuenak bilduko ditu. Amaieran, ideiak partekatuko ditugu.</p> <p>Ikasleengandik sor daitezkeen kezka, galdera edo interesetara egokitzeko irekita egongo gara.</p>
<b>EBALUAZIOA</b>	<p>Filosofia 4.DBH-n hautazko ikasgaia den aldetik, ikasleek klasean azaltzen duten arreta aktiboak, interesak eta errespetuzko parte hartzeak berebiziko garrantzia izango dute ebaluazioan.</p> <p>Horretaz gain, ikasgaia taldekako nahiz bakarkako lanen bidez ere ebaluatuko da.</p>
<b>OHARRAK</b>	<p>Hemen aipatzen dena hasierako proposamen bat denez, malgutasunez tratatuko dugu, unean uneko egoerei eta eskaerei erantzuteko.</p>



**IKASGAIAREN IZENA: KULTURA ZIENTIFIKOA (4DBH)**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>MINTEGIA: FISIKA-KIMIKA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Gure eguneroko bizitzan, etengabe ditugu inguruan zientziaren esparruarekin zerikusia duten egoerak eta hitzak, zuzenean eragiten digutenak (elikagai transgenikoak, nanoteknologia, aztarna ekologikoa, drogak, zulo beltzak...). Egungo mundua ulertzeko, herritarrek oinarrizko kultura zientifikoa izan behar dute; hau da, alfabe tizazio zientifikoa lortu behar dute
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<p><b>Unibertsoa:</b> • Unibertsoaren jatorria. • Unibertsoaren antolaketa. • Izarren bilakaeraren faseak. • Eguzki-sistema: eraketa eta ezaugarri nagusiak. Lurra, planeta biziduna.</p> <p><b>Bizi-kalitatea:</b> • Osasuna. • Gaixotasun motak: infekziosoak eta ez-infekziosoak. • Gaixotasun garrantzitsuenen adierazle, kausa eta tratamendu ohikoenak. • Drogak: droga motak. Organismoan dituzten ondorio nagusiak eta drogen kontsumoak dakarren arriskua.</p> <p><b>Aurrerapen teknologikoak eta ingurumenean eragiten duten inpaktuak:</b> • Mugatuak diren baliabideak gehiegi ustiatzea: airea, ura, lurzorua, izaki bizidunak eta energia-iturriak. • Hidrogeno-pila: etorkizuneko energia-iturria. • Inpaktuak: kutsadura, basamortutzea, hondakinak ugaritzea eta biodibertsitatea galtzea. Klima-aldaketa. Pobrezia eta gosea. • Arrisku naturalak. Hondamendi ohikoenak. Arriskuak ugaritzen dituzten faktoreak. • Planeta mugatu batean hazkunde mugagabea izatearen arazoa. Iraunkortasun ekonomikoko, ekologikoko eta sozialeko printzipio nagusiak. Nazioarteko konpromisoak eta konpainia multinazional handien eta herritarren erantzukizuna. • Euskal Herriko ingurumen-arazo nagusiak. Ingurumena: prebentzioa, kontserbazioa, leheneratzea eta hobetzea. Kontsumo eta garapen iraunkorra, aztarna ekologikoa.</p> <p><b>Berrikuntza. Material berriak:</b> • Zenbait material natural. Metalak; arriskuak, korrosioa de la eta. Papera eta deforestazioaren arazoa. Bioerregaiak eta gosearen arazoa. • Garapen zientifiko-teknologikoa eta kontsumoaren gizartea: materialak agortzea eta behar berriak agertzea, medikuntzatik hasi eta aeronautikan buka. • Zientziaren eta teknologiaren erantzuna. Material berriak. Teknologia berriak: nanoteknologia. • Materialen erabileraren ingurumen-azterketa eta energia-azterketa: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Hondakinak. • Euskal Herriko berrikuntza-zentro nagusiak.</p>
<b>METODOLOGIA</b>	Gaiaren aurkezpena: oinarri minimo bat ikusi ostean, gaien zentratutako testu zein bideoak ikusi eta aztertuko dira, iritzi kritikoa landuaz. Era berean, gai bakoitzean, lan edota proiektu bat garatuko da (ppt, vbdeo edizioak etab.). Gai bakoitzean, control txiki bat egin daiteke.
<b>EBALUAZIOA</b>	Landutako testuen iritzi kritikoak, eta batez ere gai bakoitzean garatutako lanak izango dute pisu gehiena.
<b>OHARRAK</b>	Ordenagailuen beharra izango da.

**IKASGAIAREN IZENA: KULTURA ZIENTIFIKOA (4DBH)**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>MINTEGIA: FISIKA-KIMIKA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	<p>En nuestra vida cotidiana nos rodean constantemente situaciones y palabras relacionadas con el ámbito de la ciencia que nos afectan directamente (alimentos transgénicos, nanotecnología, huella ecológica, drogas, agujeros negros). Para entender el mundo actual, los ciudadanos deben tener una cultura científica básica, es decir, conseguir una alfabetización científica</p>
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<p>Universo: . El origen del universo. La organización del universo. Fases de la evolución de las estrellas. El sistema solar: formación y características principales. La Tierra, planeta viviente.</p> <p>Calidad de vida: . Sanidad. Tipos de enfermedades: infecciosas y no infecciosas. Indicadores, causas y tratamientos más frecuentes de las enfermedades más importantes. Drogas: tipos de drogas. Sus principales efectos en el organismo y el riesgo que supone el consumo de drogas.</p> <p>Avances tecnológicos e impacto ambiental: Sobreexplotación de recursos limitados: aire, agua, suelo, seres vivos y fuentes de energía. La pila de hidrógeno: la fuente de energía del futuro. Impactos: contaminación, desertización, proliferación de residuos y pérdida de biodiversidad. Cambio climático. Pobreza y hambre. Riesgos naturales. Catástrofes más comunes. Factores que multiplican los riesgos. El problema del crecimiento ilimitado en un planeta limitado. Principios generales de sostenibilidad económica, ecológica y social. Compromisos internacionales y responsabilidad de las grandes compañías multinacionales y de los ciudadanos. Principales problemas ambientales del País Vasco. Medio ambiente: prevención, conservación, restauración y mejora. Consumo y desarrollo sostenible, huella ecológica.</p> <p>Innovación. Nuevos materiales. Diversos materiales naturales. Metales: riesgos, corrosión. El papel y el problema de la deforestación. Biocarburantes y el problema del hambre. Desarrollo científico-tecnológico y sociedad del consumo: agotamiento de materiales y aparición de nuevas necesidades, desde la medicina hasta la aeronáutica. La respuesta de la ciencia y la tecnología. Nuevos materiales. Nuevas tecnologías: nanotecnología. Análisis ambiental y energético del uso de materiales: reducción, reutilización y reciclaje. Residuos. Principales centros de innovación del País Vasco.</p>
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Presentación del tema: tras ver una base mínima, se verán y analizarán textos y vídeos centrados en el tema, elaborando una opinión crítica. Asimismo, en cada tema se desarrollará un trabajo o proyecto (ppt,</p>

	ediciones vbdeo, etc.). En cada tema se puede hacer un pequeño control.
<b>EBALUAZIOA</b>	La opinión crítica de los textos trabajados, y sobre todo el trabajo desarrollado en cada tema, tendrán mayor carga en la nota.
<b>OHARRAK</b>	Será necesario el uso del ordenador.

## FRANTSESA L2

DEPARTAMENTUA	FRANTSESEKO MINTEGIA
<b>ZERTARAKO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizartean eta teknologia berrietan ingelesaren pisua ukazina den arren, Bidasoa mugan kokaturiko eskualdea dela ezin dugu bistaz galdu, non empresa askotan eta ostalaritzan hainbat lanpostuetarako frantsesa bereziki eskatzen den. Ingelesaz gain, frantsesa jakingo duen ikasleari lan munduan aukera eta ate gehiago irekiko zaizkio. Horrexegatik, Talaia Institutuak ingelesa ikasten duen ikasleari, frantsesa ere ikasteko aukera zabaltzen dio.</li> <li>• Helburua, ikasleek komunikatzen ikastea da, bai egoera informaletan, bai formaletan ere bereziki testuinguru hauetan: Iparraldera joan-etorrietan, bidaietan, beste europar herriekin elkartrukeetan...</li> </ul>
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko mailako testuak, entzun, irakurri eta ulertu.</li> <li>• Eguneroko egoeretan erabiltzen den gramatika eta hiztegia bereganatu.</li> <li>• Oinarrizko testu laburrak sortu, idatziz eta ahoz.</li> </ul>
<b>METODOLOGIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburu nagusia frantsesa ikastea da alde praktiko eta ludikoari pisua emanaz.</li> <li>• Proiektuetan oinarritutako irakaskuntza</li> <li>• Gelako lanari eta irakasgaiarekiko interesari garrantzi berezia emango zaio</li> <li>• Ahozkotasun-trebatze prozesu honetan, frantsesa hizkuntza laguntzailearen laguntza izango dugu urteko plangintzaren arabera. Berarekin dialogoak eta eguneroko egoerak landuko dituzte ikasleek.</li> </ul>
<b>EBALUAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelan eguneroko lana.</li> <li>• Ahoz frantsesez parte hartzea, bai irakaslearekin bai irakurlearekin daudenean.</li> <li>• Binakako eta taldeko lana.</li> <li>• Proiektu eta arlo bakoitzean dagokion errubrika erabiliko da</li> <li>• Adierazle nagusia ahoz parte hartzea beraien artean eta gelan besteen aurrean izango da.</li> </ul>
<b>OHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburu hauek lortzeko, komenigarria da 1 DBHn frantsesa L2rekin hasten den ikasleak hizkuntza hau</li> </ul>

ikasten jarraitzea DBH osoan zehar.

- DELF (Alliance française) azterketa homologatuen zentru aztertzaile ofiziala.

## FRANCÉS SEGUNDA LENGUA EXTRANJERA

### DEPARTAMENTO DE FRANCÉS

- Aunque la importancia del inglés sea notoria en el ámbito social y tecnológico, es importante tener en cuenta que Hondarribia se sitúa en la comarca de Bidasoa donde en numerosas empresas y hostelería se valorará muy positivamente el conocimiento del francés. Por lo tanto, el alumno o alumna que conozca el francés además del inglés tendrá más posibilidades de acceder al mundo laboral. Así pues, en el Instituto Talaia, los alumnos y alumnas que estudien inglés como primera lengua extranjera, tienen la posibilidad de aprender el francés como segunda.
- El objetivo es que los alumnos y alumnas aprendan a comunicarse, tanto en situaciones informales, como en formales, sobre todo en los siguientes contextos: en las idas y venidas a Iparralde, en los viajes, en los intercambios a otros países europeos...

- Comprender, leer y escuchar textos de nivel básico.
- Aprender la gramática y el vocabulario utilizado en situaciones cotidianas.
- Crear textos cortos y básicos oralmente y por escrito.

- El objetivo principal es aprender el francés dando importancia al aspecto práctico y lúdico.
- Aprendizaje basado en proyectos.
- Se le dará especial importancia al trabajo en clase y al interés de la asignatura.
- Según el planteamiento del curso, se podrá disponer de la ayudante de lengua de francés para mejorar la comunicación oral. Los alumnos realizarán diálogos basados en situaciones cotidianas.

- En clase, el trabajo de todos los días.
- Al oral, que los alumnos y alumnas participen en francés con I@s profesores o ayudante de lengua.
- Trabajos por parejas y en grupo.
- Se utilizará la rúbrica correspondiente en cada proyecto o competencia.

- El indicador principal será la participación al oral entre l@s alumn@s o en presentaciones en clase.
- Para alcanzar estos objetivos, sería muy conveniente que el alumno o alumna que comience en 1ºESO con esta asignatura, continúe a lo largo de la etapa hasta 4ºESO, dado que los resultados se apreciarán con el tiempo.
- El instituto Talaia es centro oficial examinador de DELF (Alliance française).

**IKASGAIAREN IZENA LATINA 4DBH**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>GAZTELANIA ETA LITERATUA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Erromako hizkuntza eta kulturara hurbiltzeko modu espezifikoak.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Latinaren sistema <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Alfabetoa eta latinaren ahoskera</li> <li><input type="checkbox"/> Latina hizkuntza flexiboa: deklinabideak</li> <li><input type="checkbox"/> Hitz klaseak</li> </ul> </li> <li>2. Latinaren historia eta bilakaera <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Latinaren jatorria eta bilakaera</li> <li><input type="checkbox"/> Bilakaera fonetikoa</li> <li><input type="checkbox"/> Latinak euskarari eta latinetik ez datozen beste hizkuntza moderno batzuei egindako lexiko-ekarpena.</li> </ul> </li> <li>3. Hitzen eraketa <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Hizkuntza erromanikoetako osagai latindarrak</li> <li><input type="checkbox"/> Lexiko zientifikoa eta teknikoa</li> <li><input type="checkbox"/> Latinismoak eta latinezko esamoldeak ezagutzea.</li> <li><input type="checkbox"/> Hitzen esanahi etimologikoa eta lexikoa era egokian erabiltzea.</li> </ul> </li> <li>4. Gizarte erromatarra <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Gizarte erromatarraren eremu geografia eta historikoak</li> <li><input type="checkbox"/> Erakundeak eta eguneroko bizitza</li> <li><input type="checkbox"/> Erromanizazioaren aztarnak</li> <li><input type="checkbox"/> Mitologia</li> </ul> </li> </ol>
<b>METODOLOGIA</b>	Ikasleek bakarka batzuetan eta besteetan taldeka lan egingo dute
<b>EBALUAZIOA</b>	Personalizatua, lanen bidez, kontrolak, ikaslearen koadernoak, eguneroko lana ikasgelan, jarrera oso kontuan hartzen da.
<b>OHARRAK</b>	Italiar ikastetxe batekin elkarturik egiteko lehentasuna izango dute.

**IKASGAIAREN IZENA LATINA 4DBH**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>LENGUA Y LITERATURA CASTELLANA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Para acercarse de forma lúdica a la lengua y cultura romanas.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Sistema Latino <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Alfabeto y pronunciación latina.</li> <li><input type="checkbox"/> Las declinaciones.</li> <li><input type="checkbox"/> Clases de palabras.</li> </ul> </li>   <li>2. Evolución e historia del latín. <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Origen y evolución.</li> <li><input type="checkbox"/> Transformación fonética.</li> <li><input type="checkbox"/> Aportación del léxico latino a euskera, castellano y otras lenguas modernas.</li> </ul> </li>   <li>3. Composición de las palabras. <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Componenten del latín en otras lenguas romances.</li> <li><input type="checkbox"/> Léxico técnico y científico.</li> <li><input type="checkbox"/> Latinismos y frases hechas.</li> <li><input type="checkbox"/> Etimología.</li> </ul> </li>   <li>4. Sociedad romana. <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Límites geográficos e históricos</li> <li><input type="checkbox"/> Instituciones y vida familiar. Erromanizazioaren aztarnak</li> <li><input type="checkbox"/> Mitología</li> </ul> </li> </ol>
<b>METODOLOGIA</b>	Los alumnos/as trabajarán tanto individualmente como en grupo.
<b>EBALUAZIOA</b>	Personalizada, mediante trabajos, controles diarios, control del cuaderno y la participación activa en clase.
<b>OHARRAK</b>	Si se retomara el intercambio con un centro italiano, tendrían prioridad los alumnos/as de latín.



**IKASGAIAREN IZENA: MUSIKA 4. DBH**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>MINTEGIA: MUSIKA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Ikasleek hausnarketa egin ahal dezaten oinarrizko erreferenteak emango zaizkie bai musikaren dimentsio kulturalari buruz, baita musikak adierazpen-sormen eta komunikazio-bitarteko gisa duen erabilerari buruz ere. Ikasturtean zehar eskura dituzten musika-bitartekoak autonomiaz eta jarrera kritikoz erabil ditzaten ikasleen esku hainbat baliabide jartzen baitu gara musikarekiko sentsibilizatzea, musikaren bidez komunikatzea, musika hobeto ulertzea, musikaren balorazio estetikoa egiteko ahalmen handiago eskuratzea eta musikaz gehiago gozatzea lortze aldera.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	Ikasleak hainbat musika-proposamen entzun eta aztertzeaz gain, musika jotzen eta sortzen arituko dira. Musikaren bitartez XX-XXI..mendeko mugimendu kulturaletara hurbildu eta horiei buruz eztabaidatzeko aukera izango dute. Ikasturtean zehar, halaber, musikaren alorrean teknologia berriak landuko dituzte eta horretarako zenbait informatika-baliabide eta ikus-entzunezko bitarteko erabiliko dira musika ekoizteko, inprobisatzeko, melodiak eta akonpainamentuak sortzeko, musika entzuteko, ikus-entzunezko muntaketak egiteko, eta soinuak manipulatzeko besteak beste. Musikaren interpretazioari dagokionez, gitarra ikasi eta ikaskideekin batera prestatutako kantak interpretatzeko aukera izango dute.
<b>METODOLOGIA</b>	Laugarren DBHn Musika ikasgaia hautazko ikasgaia da, batez ere praktikoa, beraz ikasleak hainbat proiektuetan jardutea du helburu.
<b>EBALUAZIOA</b>	Ebaluaziorako ikasgelan lantzen denaren eguneroko behaketa hartuko da kontutan; bai kantua eta musika-tresnen interpretazioari dagokionez, eta baita ikasleek egindako lan eta proiektuen aurkezpeni buruzkoa ere.
<b>OHARRAK</b>	Ikasleek ez dute gitarra erosi behar.

**IKASGAIAREN IZENA: MÚSICA**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>MINTEGIA: MUSIKA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Se les proporcionará a los alumnos y alumnas referentes básicos para que puedan reflexionar sobre la dimensión cultural de la música y sobre su utilización como medio de expresión y comunicación. Intentaremos poner a su disposición recursos para que de forma autónoma y con actitud crítica logren una mayor sensibilización y una mejor comprensión de la música, logrando una mayor capacidad para su valoración estética y su disfrute.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	Los alumnos y alumnas analizarán distintas propuestas musicales y se dedicarán a tocar y crear música. Tendrán la oportunidad de conocer, analizar y debatir acerca de los movimientos musicales más importantes de los siglos XX-XXI. Podrán conocer diversas tecnologías y su aplicación en el ámbito de la música, utilizando diversos medios informáticos y audiovisuales para producir música, improvisar, crear melodías y acompañamientos, escuchar música, realizar montajes audiovisuales y manipular sonido. En cuanto a la interpretación musical, tendrán la oportunidad de iniciarse en la guitarra e interpretar canciones junto con sus compañeros y compañeras.
<b>METODOLOGIA</b>	En 4º de la ESO la asignatura de Música es optativa y en su mayoría práctica, por lo que los alumnos y alumnas trabajarán mediante la realización de diversos proyectos.
<b>EBALUAZIOA</b>	La evaluación de la asignatura se hará mediante la observación del trabajo diario. Se tendrán en cuenta la interpretación del canto y de los distintos instrumentos musicales, así como la realización de trabajos y proyectos, tanto individuales como grupales.
<b>OHARRAK</b>	Los alumnos y alumnas no tendrán que comprar la guitarra.

**IKASGAIAREN IZENA: "PLASTIKA " 4. DBH**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	PLASTIKA ETA MARRAZKETA
<b>ZERTARAKO</b>	Aurreko ikasturteetan ikasitakoari jarraipena emateko eta garatzeko baita alor berriak gehitzeko ere.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Diseinua:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- Afixa. EA21eko kartela, hainbat arte eta diseinu grafikoko teknikak erabiliz.</li> <li>- Bolumena. EA21eko maskotaren diseinua, buztingintzako teknikak landuko dira.</li> </ul> </li> <li>◦ Marrazketa teknikoak:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ukitzailak landuko dira. Aplikazio gisa auto-zirkuituak diseinatuko dira.</li> <li>- Perspektiba isometrikoa eta cavaliere.</li> </ul> </li> <li>◦ Bolumena:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- Paper tolesturen bidezko hiru dimentsioko egiturak sortu.</li> <li>- Poliedroak.</li> </ul> </li> </ul>
<b>METODOLOGIA</b>	Ikasleek bakarka batzuetan —bolumena eta diseinua — eta besteetan taldeka — marrazketa teknikoak, proiektuak eta bolumena — lan egingo dute. Irakasgaia guztiz praktikoa da eta plastika irakasgaiaren garaipen gisa ulertzen da.
<b>EBALUAZIOA</b>	Egindako lanetan txukuntasuna, zehaztasuna, sormena eta teknika menderatzea baloratuko da. Ideiak garatzea eta forma ematea ere kontuan hartuko da.
<b>OHARRAK</b>	Plastikako irakasgaia garatzeko ezinbestekoa eta batxilerreko Marrazketa Tekniko irakasgairako murgiltze gisa oso aproposa.

IKASGAIAREN IZENA: "TEKNOLOGIA" DBH4

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>TEKNOLOGIA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Teknologia eta Digitalizazioa irakasgaiari jarraipena emango dio irakasgai honek. Batxilerra egiteko asmoa duten ikasleek Teknologia Industriala ikasgaiaren ikusiko dutenari sarrera emateko.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fluxu diagramak egiten.</li> <li>- Kontrol automatizatuko sistemak diseinatu eta programatzen: sentsoreak, motorrak, adierazleak eta abar.</li> <li>- Etxebizitzaren elektrifikazioa.</li> <li>- Telekomunikazio sistemen oinarria: TB-a, irratia, telefono mugikorrek eta abar.</li> </ul>
<b>METODOLOGIA</b>	Irakasleak gaiari dagokion teoria azalduko du. Edukiak barneratzeko ariketak eta praktikak egingo dira. Edukietan sakontzeko eta gaiak bateratzeko proiektuak egingo dira.
<b>EBALUAZIOA</b>	Klasean egindako lanak, praktikak eta proiektuak baloratuko dira. Gai batzuetan azterketa egingo da. Jarrera, ekintzaitza eta sormena ere baloratuko da.
<b>OHARRAK</b>	<b>Batxilergoan</b> "Teknologia eta Ingeniaritza" egiteko asmoa dutenentzat oso irakasgai praktikoa izango da. Ikasketak <b>Lanbide Heziketan</b> jarraitzeko asmoa duten ikasleentzat oinarritzko ezagutzak ikasteko baliagarria izango da.